

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Euskal toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa aldatzeko akordioa (UDALHITZ)

Udalbatzak, 2024ko abenduaren 18an egindako ohiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 31. artikulua xedatzen du enplegatu publikoek negoziazio kolektiborako, ordezkartzarako eta parte-hartze instituzionalerako eskubidea dutela, lan-baldintzak zehazteko.

Halaber, 37.1 artikulua adierazten du negoziatu beharreko gaiak izango direla, besteak beste, lan-egutegiari, ordutegiei, opor-egunei, baimenei, mugikortasun funtzional eta geografikoari buruzkoak, bai eta giza baliabideen plangintza estrategikoari buruzko irizpide orokorrak ere, enplegatu publikoen lan-baldintzei eragiten dieten alderdietan.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 163.1 artikulua arautzen du enplegatu publikoek enplegu publikoari buruzko oinarrizko legerian, lege eta erregelamendu aplikagarrietan araututako baimenak izango dituztela, bai eta negoziazio kolektiboko tresnetan aurreikusitakoak ere, hala badagokio.

Abenduaren 16an bildutako negoziazio-mahaiak langileen eskaera osoko bilkurari helarazteko akordioa lortu du.

Horri buruzko nahitaezko txostena aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez (9 zinegotzietatik 9), Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaien Informazio Batzorde Iraunkorraren irizpenarekin bat etorritik, honako ERABAKI hau hartu du:

Lehenengoa. UDALHITZen 28. artikulua aldatzea, eta honela idaztea:

28. artikulua. Oporren iraupena

1. Erabateko zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran dauden langileek eskubidea izango dute zerbitzuko urte oso bakoitzean hogeita lau laneguneko opor ordainduak hartzeko, astelehenetik ostiralera zenbatuta, edo proportzioan dagozkien egunak hartzeko, benetako zerbitzu-denbora laburragoa bada.

2. Zerbitzu aktibo osoko urtea betetzen ez dutenentzat, oporraldiaren iraupena lanean hasi zirenetik edo lanera itzuli zirenetik igarotako zerbitzu-denborarekiko proportzionala izango da; data horretatik abenduaren 31ra arte zenbatuko da, eta emaitza gehiegizko egunetan biribilduko da.

3. Antzinasunagatiko opor gehigarriak. Erabateko zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran dauden langileek gehienez beste lau opor-egun hartzeko eskubidea izango dute, emandako zerbitzu-denboraren arabera, honako eskala honen arabera:

27 urtetik aurrera: 3 egun.

30 urtetik aurrera: 4 egun.

Bigarrena. 60 bis artikuluari beste paragrafo bat gehitzea, honela idatzita:

“60 bis artikulua. Erretiroa hartu aurreko baimena

Arratzua-Ubarrundiako Udaleko langileek eguneko lanaldiaren 18 minutuko baimen ordaindua hartu ahal izango dute erretiroagatiko kargu-uztearen dataren aurreko urtean. Baimen hori ezin izango da metatuta hartu.”

Hirugarrena. Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Denek jakin dezaten argitaratzen da.

Durana, 2025eko urtarrilaren 13a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE